

AURREKARIAK

Duela zortzi urtetik, Kutxa Fundazioa eta Kutxako enplegatuen elkarte, Denon Artean Denetik (DAD), lankidetzan ari dira herrialde behartsuetan garapen eta lankidetzako proiektuetarako laguntzak kudeatzen.

Duela 25 urte baino gehiago, pobreziaren aurka borrokatzeko 0,7ko ekarpena eskatzen zuten gizarte-mugimenduekiko sentikor zirelarik, **kutxako**, gaur egun Kutxabank S.A., enplegatuek, DAD elkartearen barruan, orduan “Hirugarren Munduari Laguntzeko Batzordea” deiturikoa (aurrerantzean **Lankidetzeta eta Garapenerako Batzordea**) sortu zuten. Historikoki, lorturiko funtsen bidez garapenerako lankidetzeta-proiektu asko bultzatzeko aukera egon da.

Laguntza-deialdi honekin, Kutxa Fundazioak eta DADek **Gipuzkoako (edo egoitza lurralde honetan duten) hirugarren sektore sozialeko elkarte eta erakundeek** aurkezturiko proiektuak bultzatzea dute xede, **hauen helburua lankidetzeta- eta garapen-proiektuak bultzatzea baldin bada garapen-bidean dauden herrialdeetan.**

Deialdi-laguntza hau ahalbidetzen duten funtsak Kutxabank S.A.ko enplegatuen ekarpenetatik lortzen dira. Urtean bildutako diru-kopurua Kutxa Fundazioak berdindu egiten du, eta horrela indartu egiten da Kutxabank S.A.ko enplegatuen konpromisoa guztion ongizatearen eta gizarte-eraldaketaren alde.

Gehienez 20.000 € ematen dira proiektuko eta erakundeko.

ERAKUNDE ETA ENTITATEEI ESKATZEN ZAIZKIEN HELBURU ETA BETEKIZUNAK

Deialdi honen xedea diru-laguntzak ematea da lan solidario nabarmena egiten duten elkarte eta erakundeek proiektuei, betiere Lankidetzaren eta Garapenaren eremuan (aurrerantzean, **Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak: GGKEak**) Gipuzkoan.

GGKEek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Eratuta eta formalki inskribatuta egotea dagokien erregistro ofizialean, gutxienez deialdi honen data baino urtebete lehenagotik, eta beren zerga- eta lan-betebeharrak eguneraturik izatea.
- Beren egoitza Gipuzkoan izatea.
- Irabazi-asmorik gabeak izatea eta beti era altruistan jardutea.
- GGKE bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahal izango du, bere aurrekontuarekin eta dagozkion egikaritze-epeekin.

PROIEKTUEN BETEBEHARRAK

Proiektuek bete beharrekoak:

- Egikaritu edo gauzatze epea, 2019ko Abenduaren 31a arte izango da.
- Behar hainbat azaltzea helburuak, emaitzak, jarduerak eta beharrezko baliabideak.
- Lotura justifikatua aurkeztea lortu nahi diren helburuen, egingo diren ekintzen eta horiek lortzeko erabiliko diren baliabideen artean.

- Proiektua gauzatzean ez dadila inolako diskriminaziorik egon arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako arrazoiengatik, ezta jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomiko, jaiotza edo beste edozein zirkunstantziarengatik ere.

PROIEKTUEN BALORAZIOA

Positiboki baloratuko dira:

- Giza eskubideak bultzatzea, populazio onuradunaren oinarritzko eta erakunde komunitarioen parte-hartzea sustatzea.
- Ingurumena errespetatzea bai helburuen planteamenduan eta bai horien inplementaziorako behar diren ekintzen eta bitarteko eta baliabideen planteamenduan.
- Komunitate onuraduneko kideak ere proiektua egikaritzen nahastea.
- Ekonomikoki proiektu iraunkorrak izatea ekintza gauzatu ondoren, edo jarraitutasuna aurreikusita izatea.
- DAD-Kutxan sorturiko **Lankidetza eta Garapenerako Batzordeak**, Kutxa Fundazioarekin batera deialdi hau ahalbidetzen duten diru-ekarpenak egiten dituzten Kutxabankeko enplegatuen kolektiboa ordezkatzeko duenak, baloratuko ditu proiektuak.

PROIEKTUAK AURKEZTEA

Proiektuek zehatz idatzita egon behar dute.

Gainera, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da dagozkion arloetan:

- **Erakunde eskatzailearen** Estatutuen kopia.
- Dagokion Erregistroan egindako inskribapenaren kopia.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia.
- Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- **GGKE**aren legezko ordezkariaren NAren kopia.
- Eskatzen duen pertsonaren ahalordeen kopia edo, hala badagokio, erakunde eskatzailearen izenean jarduteko ahalmena ematen dion karguaren izendapenaren kopia.
- Kutxabankeko kontu-zenbakia ordainketarako, erakunde eskatzailearen titulartasuneko.

Deialdi honetara proiektuak aurkezteak esan nahi du Oinarriak onartzen direla, baita ebazpena ere, eta hau ATZERA BOTA EZINA izango da.

DOKUMENTAZIOA

Dokumentazioa elektronikoki bidaliko da dadkutxa@kutxabank.es helbide elektronikora, gaian Lankidetza eta Garapenerako Batzordea jarritz.

AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko urriaren 1ean irekiko da eta urriaren 31n amaituko da.

EBAZPENA

Ebaluazio-batzordeak proiektuei buruzko ebazpena 2018ko azaroaren 30a baino lehen hartuko du.

GGKE eskatzaile bakoitzari emango zaio ebazpenaren berri 2018ko abenduaren 3a baino lehen.

LANKIDETZA-HITZARMENA

Kutxa Fundazioak lankidetzahitzarmena egingo du proiektuak lagunduko zaizkien erakundeetako bakoitzarekin, eta bertan proiektua gauzatzeko konpromisoa azpimarratuko da, eta proiektua aurrera eramango ez balitz edo ez balitz ezarritako baldintzetan egingo, orduan, jasotako laguntzak itzuli beharra ezarriko da.

Kutxa Fundazioak Kutxabankeko kontu batean ordainduko du laguntzaren zenbatekoa, aldi bakar batean, 2018. urtea bukatu baino lehen; erakunde eskatzaileak izan behar du kontu horren titularra.

JUSTIFIKAZIOA

Proiektuak justifikatu edo egiaztatu behar dira bukatu eta, gehienez, hilabeteko epean, beti ere, 2019ko Urtarrilaren 31a baino lehenago, ondorengo dokumentazioa aurkeztuz:

- Egingako jardueraren oroitidazkia.
- Justifikatzeko diren fakturen zerrenda.

Aurrez, proiektuaren jarraipenerako beste inprimaki bat prestatuko da, eta bertan diruz lagundutako proiektuaren garapenari buruz, baldin badago, material dokumental, grafiko eta multimediazkoa jarriko da.

Jarraipenaren helburua da, batetik, diru-emaeleekin komunikazio-bide bat ezartzea eta, bestetik, emandako diru-laguntzei esker inplementatzen diren lan eta ekintzen zabalkundean eragitea.